

Iñigo Urrutia Libarona, Aldezle izateko hautagaiaren hitzaldia

Intervención del candidato a Aldezle Iñigo Urrutia Libarona

Errektore anderea, klaustrokideak, ... egun on dagizuela.

Nire lehen hitzak eskerrak emateko dira. Eskerrak eman nahi nizkizueke aukera emateagatik gaur zuon artean egoteko, hain zuzen ere, hurrengo urteotan aurrera eraman nahi nituzkeen lan-ildoak azaltzeko. Baita ere, eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitateko Aldezlearen eginkizun eta helburuez zuekin batera hausnartzeko beta emateagatik, Aldezle erakundearen mesedetan.

Zuetariko askok ezagutzen nauzue, beste batzuk ez ordea. Orain dela 24 urtez UPV/EHUko administrazio-zuzenbideko irakaslea naiz, eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean eta Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko atalean Graduoko eta Graduondoko klaseak ematen ditut. Aurrez abokatutzan aritu nintzen, baita ofiziozko txandan eta atxilotuen laguntza zerbitzuetan aritu ere.

Bestalde, kudeaketa esparruan ibilbide zabala izateko aukera izan dut, UPV/EHUko errealitatea eta bere funtzionamendua lehen eskutik eta barnetik ezagutzeko baliagarria izan zaidana. Bete ditudan funtzio eta karguak esparru ezberdinetara hedatzen dira: Saileko lurralde atalean idazkaritza lanak burutu ditut, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean Ikasleen eta Euskararen dekanorordea izan nintzen, Inmaculada Gallastegi dekanorandarearen zuzendaritzapean; Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzan, Euskara eta Irakaskuntza Planifikaziorako zuzendaria izan naiz, Carmelo Garitaonandia Errektoreordearen zuzendaritzapean eta berriki Bizkaiko Campuseko idazkaria, Errektoreorde berarekin.

Lan arriskuak ekiditeari buruzko esparruan zazpi urtez Bizkaiko Campuseko Lan- Osasun eta -Segurtasun Batzordeko idazkaria izan naiz eta baita UPV/EHUko Campus-arteko Lan-Osasun eta -Segurtasun Batzordeko kidea ere.

Gaur egun Agente Biologikoen eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Ikerketetarako Etika Batzordekidea naiz; Zuzenbide Fakultateko doktorego programaren Batzorde Akademikoko kidea; Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak izeneko unibertsitate Masterreko Batzorde Akademikoko kidea; Saileko koordinatzailea Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Fakultate honetako egoitza batzordeko kidea eta Giza Eskubideak eta Botere Publikoak unibertsitate Katedrako kidea ere.

Norbaitek nire ibilbide profesionalari buruzko argibide zehatzagoak nahi izango balitu, prest nago galderen tartean horretan sakontzeko.

Nire ibilbidearen laburpen modura ideia bat azpimarratu nahi nuke: Eskubideak eta, bereziki, giza eskubideak izan dira beti nire lan jardunaren ardura eta lehentasuna. Horretara bideratu ditut nire ahalegin akademikoak, ikerketa emaitzak eta baita nire ahalegin pertsonalak ere, eta bide bertsutik jarraitu nahiko nuke lanean hurrengo urteotan ere. Eskubideen babesa, garapena eta bermea ikerketa esparrutzat hartu nituen aspaldi, baita ere administrazioaren jardunbidea eta prozedurak, bereziki, diskrezionalitatea kontrolatzeko bideak eta administrazioaren jardunaren legezotasuna.

Egindakoa, gaur, iragana da. Horregatik, aurrera begira jarriz, Aldezle izateko zuon konfiantza lortuko banu, hurrengo urteotako nire jardueraren gida lerroak konpartitu nahi nituzke zuokin.

Aurrena, saiatuko nintzateke orain arte karguan izan den Itziar Etxebarriak abiarazi dituen lan-ildoei segida ematen. Bere esfortzua, irudimena eta jarduera onari esker, gaur egun, Aldezlearen erakunde instituzio kontsolidatua da UPV/EHU, harrera ona duena unibertsitate kolektiboen artean, eta erakunde modura, sinesgarritasuna irabazi ez ezik, begirunea zor zaion instituzioa ere bada.

Azken urteotako memoriak errepasatzen aritu naiz eta Aldezleak egin izan dituen iradokizunetatik %80tik gora onartuak izan dira unibertsitateko instantzia ezberdinetan. Emaitza bikainak dira, hobe ezinak. Argi dago Aldezlearen lana lagungarri gertatu zaiola UPV/EHUri: -bere jarduera eta praktika administratiboa hobetzeko, -zerbitzu egokiagoa ematekoa, -eta unibertsitateko kide garenon eskubideak bermatzeko.

UPV/EHUko etengabeko hobetze prozesuari dagokionez Aldezlearen jarduerak toki propioa irabazi du. Hortaz, nire begirunea eta errekonozimendu publikoa Itziar Etxebarria Aldezleari, Aldezle erakundearen alde egindako ahalegin zintzo eta emankorrarengatik.

En todo caso, la institución del Aldezle ha de afrontar y tratar de dar respuesta a nuevos desafíos que pueden provenir de diferentes orígenes, pero todos ellos necesitados de respuesta. Así, por ejemplo, sin ánimo de exhaustividad, puede pensarse en las nuevas necesidades, retos y preocupaciones que surgen con la utilización de medios electrónicos por las Administraciones Públicas, y en el derecho fundamental a la protección de datos personales.

También puede pensarse en ámbitos tales como, por ejemplo, la atención a la discapacidad, que está cobrando cada vez mayor atención por parte de Derecho.

La atención a la diversidad es otro reto que cabría enfocar partiendo de que representa un patrimonio enriquecedor para nuestra Universidad, que ofrece nuevas oportunidades.

Mientras que, para gente entre nosotros, sea más seguro quedarse dentro de sus burbujas, tendremos cosas que mejorar. Hemos de superar las discriminaciones en la Universidad, incluso las más sutiles.

No podemos relajarnos en el impulso para extender la participación, la democracia, los derechos culturales, los derechos lingüísticos, la normalización del euskera, los derechos Humanos, los derechos de las mujeres, los derechos de otros colectivos... sin importar la imperfección de nuestro empeño. El Aldezle ha de mantenerse siempre vigilante ante cualquier agresión de los derechos de las y los universitarios. Al mismo tiempo debe esforzarse por que los derechos, y especialmente los derechos fundamentales de las y los universitarios, se ensanchen en el mayor grado posible.

En otro orden de cosas, no cabe olvidar las repercusiones de las últimas reformas normativas, dictadas en un contexto de crisis económica, que han impactado sobre la Universidad con evidentes consecuencias negativas en lo social, en lo laboral y en la carrera universitaria, así como en el propio servicio público universitario y especialmente en la Universidad Pública.

Al mismo tiempo, los estándares del servicio público educativo son cada vez más exigentes, lo que se traduce en sistemas de acreditación de titulaciones y de profesorado cada vez más rigurosos, cambios en las formas de actuar, burocratización, etc. y todo ello, claro está, bajo el principio de "coste 0".

En esta situación sufre el servicio público universitario y se corre el peligro de que, en lugar de mejorar, disminuya la calidad de la actividad universitaria. El o la Aldezle que elija el Claustro

universitario tendrá que esforzarse por dar respuesta, en la medida de sus posibilidades, a esas cuestiones e incertidumbres y tratar de canalizar las tensiones que de ello puedan derivarse.

Servicio público: este es un concepto muy importante en una fase de la evolución del Derecho administrativo que después parece haber quedado en desuso.

Desde mi perspectiva el servicio público sigue siendo una categoría jurídica fundamental, sin la cual no es posible entender el desarrollo de las sociedades actuales. Sin la prestación del servicio público de la enseñanza, mediante el cual se garantiza, en condiciones de igualdad, la posibilidad de acceso a la cultura y al conocimiento de las personas, sin esa forma de intervención pública, cualquier democracia se encuentra necesariamente demediada.

La noción de servicio público se entrelaza con otro concepto de fundamental importancia, el derecho a la educación.

La universidad debe dar respuesta a estas dos ideas, servicio público y derecho a la enseñanza, y debe hacerlo de forma igualitaria, libre, teniendo en cuenta su función en una sociedad como la que vivimos. En la prestación de este servicio, en la garantía de ese derecho, la Universidad debe ser eficaz y eficiente, aunque sin convertir esa prestación en una actividad sin alma, que olvide dónde estamos y qué perseguimos, pretendiendo justificar la actividad universitaria con cifras de diverso tipo, pero sin preguntarse sobre el cumplimiento de las funciones que la Universidad tiene asignadas.

En este sentido, entiendo que la función del Aldezele debe estar vinculada a estas ideas. Su función es garantizar y dar a conocer a los estudiantes y las estudiantes, así como al profesorado y el PAS, la importante función de la Universidad en la sociedad, y la responsabilidad que como Aldezele corresponderá a quien elija este Claustro, como institución de garantía de su cumplimiento. En este sentido, me siento comprometido con la idea de servicio público, con los derechos de los estudiantes y las estudiantes, así como con la importante función del PAS. Todos y todas somos necesarios y necesarias para el desarrollo del proyecto universitario, que es vivo, y que no puede pararse, al contrario, que necesita acomodarse a esta realidad cambiante.

Concibo la figura del Aldezele como un puente entre las personas que formamos parte de la UPV/EHU, y entre aquellas y la institución. Actuar como puente exige proximidad y disponibilidad, así como mantener una relación basada en la lealtad con la institución, con el fin de mejorar su funcionamiento. Esa lealtad con la institución lo es también con sus miembros, con cada alumno y alumna, con cada trabador y trabajadora de administración y servicios, y con cada docente, siendo el Aldezele garantía de sus derechos, lo que no deja de ser un requisito de eficacia en el propio funcionamiento de la institución en la que todos nos integramos.

Para el logro de estos objetivos deben respetarse algunos principios, así: seguiré defendiendo la independencia y la autonomía de gestión del Aldezle, siendo consciente de que ello no será una tarea cómoda para mí, pero confío en que todas las instancias universitarias sean sensibles a los problemas que nos atañan y entiendan que la actuación del Aldezle se dirige a mejorar el funcionamiento de la Universidad del País Vasco. Actuaré con neutralidad ante todos los colectivos y los grupos, y trataré de garantizar la facilidad de acceso y de comunicación con el Aldezle.

La autoridad del Aldezle no deriva solo, ni principalmente, de las facultades que le han sido normativamente reconocidas, sino, esencialmente, de su capacidad para generar consensos y alcanzar acuerdos razonables. En esa línea, los ejes fundamentales de esta propuesta son los siguientes: Por un lado, el mejor servicio a los miembros de los colectivos universitarios, velando y asegurando que se respetan sus derechos y libertades; y por otro lado, la búsqueda de la mejora permanente en la UPV/EHU.

Garantizar los derechos y actuar con transparencia, objetividad y sirviendo a los intereses generales de acuerdo con los procedimientos establecidos son aspectos esenciales para mejorar el funcionamiento de las administraciones públicas, incluida la Universidad.

Para finalizar, daré cuenta de forma sintética de algunos de los principios y actividades que quisiera emprender:

1. Atención prioritaria a la prevención de los conflictos y, caso de resultar insuficiente, actuar en clave de resolución
2. Unibertsitate komunitateko kideei dagozkien eskubideen gaineko informazioa helaraztea, baita eskubide horiek bermatze aldera aurreikusi diren tresnen gaineko informazioa helaraztea ere.
3. UPV/EHUko administrazioko ordezkariekin etengabeko elkarrizketa eta komunikazio bide jariakorrak eta leialak sustatu. Horrek ez du esaterik nahi kritikarik egingo ez direnik, ezta erroreak edota arbitrarietateak salatuko ez direnik ere. Proposatzen dena zera da: gerta daitezkeen liskarrei arrazoizko irtenbideak bilatze aldera, zintzoki jardutea, elkarrizketari bide emanez.
4. Pertsonak eta taldeek adierazten dutenari adi egotea. Horretarako bilguneak bultzatuko dira. Zehazki, ikasleen kontseiluarekin eta sindikatuetakako ordezkariekin bilerak egingo dira. Bide bertsutik, Unibertsitate komunitatea osatzen duten kideak bultzatu nahi nituzke, erabakiak hartzeko prozesuetan aurreikusitako parte hartze baliabideak erabil ditzaten.

5. Arartekoarekin eta unibertsitate kideen defentsarako beste erakundeekin lankidetzan aritzea. Europako unibertsitateetan dauden antzeko erakundeekin harremanak sendotzeko ahalegina egingo dut.

6. Zuzenbidearen arabera eta ekitatearen arabera jardutea.

7. Objektibotasun, proportzionaltasun eta gardentasun printzipioak berma daitezen zaintzea, bai administrazio-ebazpenetan, bereziki zuhurtziarako ebazpenetan arrazoitzeko nahitaezkotasuna ongi bete dela zainduz, bai administrazio-prozeduretan ere.

8. Unibertsitate instituzioaren jardunean praktika egokiak edo adibide egokiak ezagutarazi eta bultzatu.

Eta 9garrenez eta azkenik: Ofizioz edo Aldezlearen kabuz aritzea, eskubideren baten bortxaketa-zantzuak antzematen diren kasuetan.

Aipatu dizkizuedan eginkizun horiek funtsezkoak iruditzen zaizkit unibertsitate kolektibo ezberdinetako kide garenon dignitatea, askatasuna eta eskubideak, bereziki ahulenak diren pertsonen eskubideak zaintzeko eta defendatzeko.

Ez ditut ahaztekoak Bizkaiko Abokatuen Bazkunean kolegiatu nintzenean Abokatuen Dekanoak luzatu zizkigun hitzak: Eskubideen aldeko defentsa etengabekoa da, inoiz bukatuko balitz boterearen immunitatea garaile aterako litzateke. Aldezle kargua izateko aukerarik banu, defentsa gabezia sentitzen diren gure lankide edo ikaskideen eskubideak berotasunez baina neurri berean buru hotz defendatzen saiatuko nintzateke.

Hori gauzatzeko zuen konfiantza eskatzera natorkizue....

Eskerrik asko.